


**HAIZEAREN ORRAZIA
A MAILA****EDUARDO CHILLIDA PASEALEKUA****Eduardo Txillida eta Luis Peña Gantxegi, 1975****Deskribapena**

Luis Peña Gantxegi arkitektoaren plazak, Eduardo Chillida eskultorearen «haizearen orraziak» izeneko hiru eskulturek, eta hango natura inguruneak —Igeldoko labarraren behealdeak eta labarraren eta Santa Klara uhartearen arteko marearteko zabalgunearen arte batek— osatzen dute Haizearen Orrazia multzoa. Plaza plataforma bikoitz mailakatu batez osatuta dago, hegoaldeetik iparraldera luzetara antolatuta. Plazaren gehieneko luzera 140 m ingurukoa da, eta 20 m eta 40 m bitarteko zabalera du, gutxi gorabehera. Porriñoko granito arrosa erabiltzeak naturara hurbiltzen du eraikidura hori. Harri mota bera erabili dute plataformetan, lurzoruetan, harmailetan eta itsasorako ikusmira mugatzen ez duen babes horma zabal eta baxuaren erremate oparoan, osotasunari zentzua ematen diola. Bestalde, eskultura triptikoa osatzen duten piezak plazaren iparraldean daude, marearteko zabalgunetik gertu dauden arroketa sartuta. Horietako bakoitzaren tamaina 3,00 m ingurukoa da. Lehena, hurbilena, plazaren mendebaldeko izkinaren ondoan dago, itsaslabarrean; bigarrena, ekialdekoena, plazaren ertzetik metro gutxira; eta, azkenik, erdiko eskultura, 80 bat metrora. Burdinazko hiru forma dira, leku berezietan eta plazaren ertzetatik bakoitza distantzia batera. Corten altzairuzko hiru pieza, bakoitza ia 10 tonakoa, arroketatik sortzen dira eta zeruertzera ikuspegiak iragazten dituzte, itsas paisaia ireki eta dinamiko bat eratzen dute, eta eskala erreferentzia bat ematen diote behatzaileari.

A mailako babes espezifikoaren erregimena

- Erregimen orokorra
Plan berezi honen A babes graduan sartzeari lotutakoa.
- Erregimen espezifikoaren
Haizearen Orraziaren plaza eta eskulturak monumentu multzoaren kategoriako babes bereziko kultur ondasun izendatzearen ondoriozkoa, 212/2019 Dekretuaren arabera, 2019-02-15eko EHAA.
- Eragindako eremua: xedapen horretan ezarritakoa.